

BALIOZKO PROPOSAMENA

Zerk bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Pandemiak irauten duen bitartean herriko enpresa txikiek zailtasunak dituzte euren produktuak saltzeko, hori dela eta asko eskertu dezakete gure laguntza produktu horiek saltzeko momentuan, gainera webgune honekin irabaziko duguna, hau da, enpresek ordaindu beharko dutena portzentai oso txiki bat bakarrik izango da, web gunea mantentzeko behar duguna. Portzentai hori ere ez eskatzea nahiko genuke eta helburuetako bat bezela jartzen dugu, baina orain bertan ez dugu inoren laguntzarik, horregatik zeozer eskatu beharrean gaude. Espero dugu diputazioari proiektu hau gustatzea eta gure proiektua finantziatzen laguntzea

Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Enpresa asko eta asko itxita daudenez, euren produktuak saltzeko beharra konpontzen dugu.

Gainera, gurekin lan egiteko nahia duen edozein sektoretako enpresekin lan egiteko prest gaude, ez dugu sektore bat bera ere baztertuta laga nahi.

Merkatua aztertu dugu eta ikusi dugu herrietako enpresa txikiak denontzako zailak diren garai hauetan marjinatuta daudela eta bereziki arazoak izaten ari diren sektore bat direla. Hori ikusita, pentsatu dugu aproposa dela enpresa txiki hauei laguntzeko proiektu bat sortzea eta garrantzitsuena, irabazi asmorik gabe. Enpresa hauei momentu hauetan honen truke dirua eskatzea behar batetaz aprobetxatzea dela uste dugu, ez dutelako diru sarrerarik ezta laguntzarik eta bizi-irauteko produktuak saltzea ezinbestekoa da. Beraz, uste dugu hainbat enpresak edukiko dutela gurekin lan egiteko nahia eta gure proiektua oso lagungarria izango dela momentu zail hauetan aurrera atera ahal izateko.

